

3. Txosten Prospektiboa



Etorkizuneko agertokiak

Hezkuntza

Etengabe eraldatzen ari den mundu honetan, digitalizazioa urrats handiak egiten ari da, eta gizarte- eta ingurumen-erronkak gero eta konplexuagoak dira. Testuinguru horretan, hezkuntza da etorkizun bidezkoago eta jasangarriagoak eraikitzeko ezinbesteko tresna. Hala dago jasota 2030 Agendako Garapen Jasangarriako Helburuetan; izan ere, hezkuntza inklusiboaren, ekitatiboaren eta kalitatezkoaren unibertsalizazioa da helburu gakoetako bat (GJH4). Agendan jasotakoa betetzeko bost urteko epea ezarri bazen ere, azaleratzen ari den joera global emergente batek eskatzen du: hezkuntzarako sarbidean eta kalitatean handitzen ari den arrakala, desparekotasun teknologikoak eta testuinguru pedagogikorik ezak areagotua, bereziki pandemiaren ondoren. Egoera horrek biztanleriaren sektore zabalak atzean utz ditzake, bai eta egungo desberdinkeriak areagotu ere. Testuinguru hori ikusita, beharrezkoa da hezkuntzaren etorkizuna birpentsatzea, eta, horretarako, joera globalak Euskadiko errealitate eta erronka espezifikoekin lotu behar dira. Txosten prospektibo honen helburua da aztertzea dinamika global horiek nola eragingo dioten gure hezkuntza-sistemari eta zer estrategia berritzaile antola ditzakegun hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izan dadin gure lurraldeko biztanle guztientzako, betiere jomuga 2040 urtea dela.

Etorkizunera begirako ariketa hau egiteko, Deustuko Unibertsitateak eta Alboan Fundazioak ad hoc lantalde bat antolatu zuten hezkuntzaren etorkizunari buruz “Euskaditik Mundura: hurbilketa kritikoa Euskadiko 2030 Agendara begirada global batetik eta giza eskubideen ikuspegitik” baterako proiektuaren baitan. Taldea 2024-25 ikasturtean sortu zen, eta hezkuntzarekin zeharka lotutako erakunde desberdinetako hamabost pertsona bildu zituen, irakaskuntza-instituzioetatik hasi eta kooperazio-erakundeetaraino, eremu desberdinetakoak (formala eta ez formala) eta maila desberdinetakoak (lehen eta bigarren hezkuntza, unibertsitatea). Ezagutza taldean sortzeko ibilbidea garatzeko, etorkizuneko agertokiak planifikatzeko metodologia egokitu bat erabili zen.

Jarraian daude lehenengo bi saioetan identifikatutako aldaketa-faktoreak, taldeak hautatutako bi faktorerik eraginkorrenak gurutzatzearen ondoriozko agertokiak eta etorkizunean nahi dugun agertokia lortzeko gauzatu beharreko estrategiak: hezkuntza inklusibo, ekitatibo eta kalitatezkoarako sarbidearen esparruan aukera-berdintasuna bermatzen duen gizartea.



Aldaketa-faktoreak identifikatzea: 2040 zerumuga

Jarraian, lantaldearen azterketaren arabera, 2040. urteraino hezkuntzaren bilakaera baldintzatuko duten faktoreak daude jasota. Aldaketa-faktore horiek ekonomikoak, politikoak, sozialak, ingurumenekoak edo teknologikoak izan daitezke eta horiek aztertuz gero joerak, zalantzak eta balizko eraginak identifikatu ahal izango dira etorkizuneko agertokietan.

Faktorea	Deskribapena
Aukera-berdintasuna	Hau da, hezkuntzarako sarbidean ekitatea formalki aitortzea eta benetako aukera-berdintasuna lortzeko finantzaketa egokia mantentzea.
Merkantilizazioa	Hezkuntzaren pribatizazio mailakatua, merkatu-ondasun gisa, eta ez ondasun publiko gisa. Interes pribatuak eta ebaluazioak kanpora ateratzea nagusi dituen globalizazio-eredua.
Pedagogia alternatiboak	Eskolako curriculumean pedagogia alternatiboak txertatzeak hezkuntza-sistemaren eta irakasuntza ereduen eraldaketa partikularra dakar.
Aurrerapen teknologikoak	Berrikuntza teknologikoen inpaktuak (AA bereziki), eragin potentziala du hezkuntza-sistema osoan, laneko metodologietatik hasi eta digitalizazioaren dilema etikoetaraino.
Irakasleen kalitatea eta konpromisoa	Irakasleen etengabeko eta kalitatezko prestakuntza eta hezkuntza-ikuspegi desberdinetarako irekitasuna oinarritzkoak dira kolektiboak bere lanarekiko duen konpromisoaren esparruan.
Globalizazioa eta identitate euskalduna	Globalizazioak berekin dakar kultura desberdinekiko irekitasuna eta bizimoduaren unibertsalizazioa, baina horrek zalantzan jartzen ditu tokiko identitateak eta arriskuan jartzen du euskararen erabilera zein euskal kulturaren transmisioa.
Lan-merkatuarekiko harremana	Hezkuntzaren ikuskera utilitaristak diziplina humanistagoak edo balioen inguruko heziketa alde batera utz ditzake, laneko merkatuan soilik zentratzeko (ez soilik unibertsitatean, baita bigarren hezkuntzan ere)
Gizarte-konplexutasuna eta osasun mentala	Informazioaren eta digitalizazioaren aroan bizitza soziala azeleratzeak uste ez den eragina du ikasle eta irakasleengan, hala nola kontzentratzeko gaitasuna galtzea edo osasun mentala okertzea.
Dinamika demografikoak	Jaiotza-tasaren beherakada eta biztanleria migratzailearen agerpena gelan eta ikastetxeetako kudeaketan islatzen diren erronkak dira.
Gobernantza	Akordio politikoetara iristeko gaitasuna ezinbestekoa da kalitatezko hezkuntza irisgarri eta inklusiboa bermatzeko.
Eraldaketa ekologikoak eta ingurumenekoak	Ingurumen-erronkak baldintzatuko ditu hezkuntzarako azpiegiturak eta ikastetxeen beharrak eta baliabideak, eta, hortaz, plangintza politikoa eta aurrekontuen planifikazioa ezinbestekoak dira.
Antolaketa-alderdiak	Hezkuntza erakundeen gaitasuna eta estrategiak tokiko eskaera eta eskaera globaletara egokitzeko.

Etorkizuneko agertoki posibleak

Lehenetsitako aldaketa-faktoreetatik abiatuta, bi faktore lehenetsi ziren etorkizuneko agertokiak pentsatzeko

Teknologia berrien inpaktua hezkuntza sisteman

Polaritate negatiboa: berrikuntza teknologikoak modu akritikoan eta irizpide ekonomikoen arabera sartzen dira geletan; irakasleek ez daukate beren metodologiak egokitzeko eta metodologia horiek ikasleengan izan ditzaketen ondorio negatiboak prebenitzeko prestakuntza nahikorik.

Polaritate positiboa: berrikuntza teknologikoak irakats metodologiaren zerbitzura daude, eta modu gradualean eta unibertsalean ikastetxe guztietan txertatzen dira, gelan IKTen erabilera egokia bermatzeko.

Gobernantza-eredua eta hezkuntzarekiko konpromisoa

Polaritate negatiboa: akordio politikoak falta dira hezkuntza inklusiboa bermatzeko, eta horrek hezkuntza-eredu zaharkitua eta estandarizatua betikotzen du, tokiko beharretara egokitzen ez dena eta desparekotasuna betikotzen duena.

Polaritate positiboa: talde politikoen arteko ituna lortzen da, kalitatezko hezkuntzarako sarbide unibertsala eta arlo horretako legeen egonkortasuna bermatzeko. Horrek guztiak orekatu egiten ditu prestakuntza tekniko eta humanistak, herritartasun globalerako hezkuntza eta gizarteratzea.



Bi aldagai horien gurutzaketatik lau agertoki sortzen dira:



Lantaldearen analisiaren esanetan **2. agertokiaren** (justizia ekosozialera bideratutako hezkuntza unibertsalaren aldeko ituna) oinarrian elkarri konektatuta dauden bost zutabe daude, sistema sendoa eta eraldatzailea bermatzeko.

1. Kalitatezko Hezkuntzan ez dira soilik edukiak kontuan hartzen, irakasleen bikaintasuna baizik; izan ere, pedagogia humanistak, kritikoak, inklusiboak eta eraldatzaileak ezartzen ditu, ebidentzia zientifikoan oinarritutako metodologiak eta ikuspegiak oinarri hartuta.

2. Hezkuntza-komunitate anitza du oinarri, autonomia eta parte-hartze demokratikoa ardatz dituen.
3. Bere egiten du Herritartasun Globalaren kontzeptua, eta planetaren erronkekin konprometitutako ikasle-herritar profila sortzen du.
4. Bete-bete bere egiten du Guztion Ongia kontzeptua, eta ekintza guztiak onura kolektibora bideratzen ditu.
5. Hezkuntza-hitzaumenak ditu oinarri eta horiek epe luzean garatzeko eta finkatzeko behar den legezko egonkortasuna bermatzen du.

Aukeratutako agertokia eraikitze inplikaturako eragileak

Irakasleak: Prestatuak eta beren lanagatik aintzatetsiak. Lagundu, inspiratu eta ikasteko ingurune motibatzailea eta zaintzailea sortzen dute.

Ikasleak: Kritikoak eta inkonformistak, ilusio eta erronkaz beteak. Ikaskuntza prozesuan aktiboki inplikatzen dira, bai eta beren garapen pertsonalean, sozialean eta akademikoan ere.

Hezkuntzaren arloko langileak (jantokiko begiraleak, garraioa, etab.): Ikastetxeetako eguneroko bizitzan daude. Hezkuntza-prozesuak laguntzen dituzte, hurbiltasunez eta konpromisoz.

Familiak eta familia-elkarteak: Laguntzeko prest, exijenteak eta asmo argiekin. Hezkuntzan parte hartu, ikaste-prozesua sustatu eta ikasleen motibazioa laguntzen dute.

Adituak eta ikertzaileak: Ezagutza, esperientzia eta dialogo eskaintzen dituzte. Irakaskuntza ebidentzia zientifikoarekin lotzen dute eta atzeralikadura aberasgarria eskaintzen diote hezkuntza-komunitateari.

Eragile politikoak (udalak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza, alderdi politikoak): Hezkuntza-kudeaketarekin konprometituta daude. Entzun egiten dute, hezkuntzari lehentasuna ematen diote eta antolaketan eta parte-hartzean oinarritutako erabakiak hartzen dituzte.

Gizarte eragileak (arteak, kirola, kultura, gazteen elkarteak): Inspirazioa eta balioak transmititzen dituzte: elkartasuna, esfortzua, bizimodu osasuntsua, sormena eta imajinarioa. Komunitatetik abiatuta aberasten dute prestakuntza.

Gizartean esku-hartzeko eragileak (gizarte hezitzaileak, gizarte langileak, osasun arloko langileak, etab.): Gizartearen errealitatea hurbiletik ezagutzen dute. Garapen pertsonaleko eta kolektiboko prozesuetan lagundu, zaindu eta elkarlanean aritzen dira.



Eragile ekonomikoak: Gizarte-aurrerapenarekin inplikatur. Laneratzea, orientazio profesionala eta hezkuntza eta enpleguaren arteko lotura ahalbidetzen dute.

Informazioaren eta komunikazioaren arloko eragileak: Objektibotasunez eta ikuspegi pedagogikoarekin jarduten dute. Informazioa zorrotz eta sentsazionalismorik gabe zabaltzen dute, eta komunikazio arduratsua lortzen laguntzen dute.

Mundu digitaleko eragileak: Errespetuak eta berdintasuna gidatzen ditu. Informaziorako eta ezagutzarako sarbide irekia eta anitza sustatzen dute.

Estrategiak

A. Eragin politikoa hezkuntza-hitzarmen globalak eta tokikoak lortzeko:

1. Eraginkortasuna eredu izan dezaketen testuinguru globaletako **hezkuntza-hitzarmenen** azterketa, hezkuntza-hitzarmen horietako jardunbide egokiak zehaztapena.
2. Garapen jasangarrirako eta herritartasun globalerako **prozesuen egonkortasuna** ahalbidetuko duten mekanismoen artikulazioa: partekatutako esparru komuna bermatzea.
3. Entitate politikoen eta hezkuntza- eta gizarte-eragileen arteko **parte-hartze mekanismoak** ezartzea eta garatzea, hezkuntza-hitzarmen eraginkorrak ahalbidetzeko (maila desberdinak: tokikoa, nazionala eta globala)
4. **Ikuspegi dekoloniala eta antiarrazista** gehitzea (kulturartekotasunaren, diziplinartekotasunaren eta hezkuntza-sistemaren mesederako diren beste hobekuntza soziokultural batzuen hasierako proposamenetatik abiatuta)
5. **Hezkidetzako ikuspegi interseksionala** gehitzea.
6. Eragile politiko eta gizarte-eragileen esparruan, **kudeaketa eraginkorrerako** eredu eta mekanismoen inguruko hausnarketak.
7. **Hezkuntza-hitzarmen eraginkorrak** ahalbidetzea tokian, estatuan zein mundu mailan.
8. Ezagutza sustatzea eta tokiko eta munduko kultura- eta hizkuntza-adierazpenen balioa azpimarratzea, bizikidetzak eta hizkuntza aniztasuna defendatu ahal izateko



B. Hezkuntza-sistamarako aurrekontu-estrategiak, hezkuntza-helburuen arabera:

1. Baliabideetarako inbertsio-politikak, hezkuntza sistamarako doako sarbide unibertsala bermatzeko, desparekontasunen aurkako borroka efektiboa ahalbidetzeko.
2. Erakunde publiko desberdinen arteko koordinazioa eta parte-hartzea, aurrekontu-politikak batera diseinatzeko.
3. Lan-arloko hobekuntzak, beharrezkoak eta posibleak (ratioak, ordutegiak, etab.)

C. Irakasleak eta hezkuntza- eta gizarte-komunitatea:

1. Irakasleen eta ikastetxeetan lan egiten duten pertsona ororen **hasierako eta etengabeko prestakuntza** sustatzea, justizia ekosozialera bideratuta.
2. Irakasleentzako eta bestelako profesionalentzako **zaintza-, laguntza-, jarraipen-, ebaluazio- eta aitorpen-prozesuak** eta sistemak ezartzea.
3. Ikastetxeetan **zaintzaren etika, ingurune segurua eta tratu onak** ezartzea.
4. Ibilbide pertsonalarekin, motibazioarekin eta abarrekin lotutako **profil zabalean oinarritutako sarbide-sistema** bat sortzea.
5. **Profesionalen ekosistema** bat sortzea, hezkuntza-premiei eta testuinguru aldakorrei erantzuna emateko koordinatu daitekeena, komunitateak sortzeko indar handiarekin.
6. **Jardunbide egokiak edo esperientzia esanguratsuak** sustatzea, bai eta justizia




ekosozialaren aldeko apustu argia egiten duen kalitatezko hezkuntza eta hezkuntza goxoa sustatzen laguntzen duten metodologiak ere.

7. **Bestelako ezagutzen** balioa azpimarratzea, marjinetan (akademiatik kanpo) daudenena eta jendearen errealitatetik eta esperientzia zehatzetatik sortzen direnenak.
8. **GGKE eta gizarte-mugimendu** askotarikoekin aliantzak indartzea.
9. **Hezkuntza- eta gizarte-komunitateen** guneak eta sareak diseinatzea.
10. **Lidergo banatzaile eta erantzunkidea** duten ereduak diseinatzea, kudeaketa parte-hartzaileko eta gizarteratzean eta aniztasunean oinarritutako hezkuntza-esparruak sortzeko.
11. **Familiekin** lanketa egin, ikuspegi ekosozialetik eta benetako hezkuntza-komunitatearen ikuspegitik, balio, ohitura eta/edo jardueri lotutako akordio zabalak lortzeko.
 - a. Ordezkaritza anitza duten udalerrietako eskola-kontseiluak indartzeko politikak diseinatzea.

D. Habitat digitala:

1. Teknologiak **justizia ekosozialeko** beharretarako erabiltzea bideratu.
2. **AAko sistemen oreka eta erabilera zaindu**, munduko pertsona eta herri ororen eskubideak bermatzeko.
3. Adingabeak babestu teknologia eta sare sozialen gehiegizko erabileratik, justizia ekosozialera bideratuak biak.
4. **Korporazio handien mendekotasuna** saihestuko duten mekanismoak, ezagutzarako eta baliabideetarako sarbide unibertsala bermatzeko.
5. **Prozesu parte-hartzaileak** egiteko enpresa informatikoak identifikatzeko estrategiak diseinatu.





E. Hegoalde Globalarekin lankidetzak

1. Solidaritatearen (eta ez karitatearen), ekitatearen eta justizia ekosozialaren zentralitatea sustatzen diren jardura guztietan.
2. Aldebiko trukea, esperientziei, jardunbide egokiei, prestakuntzari, hezkuntza-eredu berritzaileei eta irakasleei dagokionez. Bestelako errealitate eta esperientziekiko irekitasuna sustatzea.
3. Prestakuntzen aniztasunaren balioa aintzatestea eta atzerriko prestakuntza balioztatzea.
4. Sinergiak eta prozesu komunak egitea, atzeraelikatzeke eta kalitatezko hezkuntza sustatzeko, pentsamendu kritikoa sustatu eta alternatibak proposatzeko tresnak ahalbidetuko dituen.
5. Hegoalde Globalari laguntza ematea, materialen eta azpiegituren bidez, prestakuntza-prozesuak, gaitzekoak zein hezkuntza-garapenerakoak finantzatuta (nazioarteko kooperazioaren bidez, GGKEak, etab.)
6. Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeen arteko lankidetzak, sareak eta akordioa ezartzea, bai eta lankidetzak- eta ikerketa-proiektuak ere, partekatutako pentsamendua sustatzeko.
7. Giza eskubideen balioa azpimarratzea, bai eta herritartasun globalerako hezkuntza-estrategien jarraibideak ere, nazioarteko erakundeek sustatuak (hala nola UNESCO, CEPAL edo Flacso) guztiak ere.
8. Kooperazio-politikak sustatzea, arrazoi politiko, soziala, erlijioso edo ingurumen-arloko arrazoi onduko gatazkak ebaztea helburu duten proiektuei baliabideak eskainiz.



Hauek finantzatu dute:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOA
Lankidetzaz



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN